Osakidetza



LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA

GALDERAK

1.- Zer motako arau-haustetzat hartuko dira ausarkeriaz gidatzearekin lotutako jokaerak?

a) Arau-hauste oso astuna.
b) Arau-hauste astuna.
c) Ez dira arau-haustetzat hartuko.
d) Arau-hauste arina.

2.- 1428/2003 Errege Dekretuaren arabera, zer motatako arau-haustea da suteak sor ditzakeen edozein objektu bide publikora botatzea?

a) Arau-hauste oso astuna.
b) Arau-hauste arina.
c) Arau-hauste astuna.
d) Arau-hauste izugarri astuna.

3.- Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzako agenteek alkoholak eragindako intoxikazioak detektatzeko ezarritako probak egin ditzakete. Nori?

a) Zirkulazio-istripu baten balizko erantzule gisa inplikatutako edozein bide-erabiltzaileri edo ibilgailu-gidariri.
b) Edozein ibilgailu edari alkoholdunen eraginpean gidatzen ari direla uste izateko ageriko sintomekin gidatzen ari direnei.
c) Ibilgailu bat gidatzen ari direla, alkoholemiaren prebentziozko kontrolen programen barruan proba egitea eskatzen zaienei.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

4.- Larrialdi-zerbitzurako ibilgailuetan, gidariek zer alkohol-tasa EZIN DUTE gainditu botatako arnasan?

a) Botatako arnasan litroko 0,15 miligramotik gorako alkohol-tasa.
b) Botatako arnasan litroko 0,3 miligramotik gorako alkohol-tasa.
c) Botatako arnasan litroko 0,25 miligramotik gorako alkohol-tasa.
d) Botatako arnasan litroko 0,50 miligramotik gorako alkohol-tasa.

5.- Nork du kasu zehatz bakoitzean larrialdietako zerbitzuko ibilgailuak non kokatu behar diren adierazteko ardura?

a) Ibilgailuko langile sanitarioek.
b) Bertan dauden suhiltzaileek.
c) Trafikoa arautzeko ardura duen autonomia-erkidegoko edo tokiko agintaritzak.
d) Aurreko hiru erantzunak okerrak dira.

6.- Larrialdi-zerbitzuetako ekipoen jardunean, nola gelditu edo aparkatu behar da ibilgailua?

a) Arrisku egoera berri bat ez sortzeko moduan.
b) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
c) Zirkulazioan oztoporik txikiena sortzen duen lekuan.
d) Ondoren egin beharreko jarduketatik hurbilen dagoen lekuan.

7.- Biziraupen-katearen laugarren mailak egin beharreko ekintza batzuei egiten die erreferentzia. Zeintzuk dira ekintza horiek?

a) Bihotz-geldialdian dagoen pertsona aztertzea.
b) Bizi-euskarri aurreratua arnasbideen maneiuarekin, farmakoak eta bihotz-geldialdia eragin duten faktoreen zuzenketa.
c) Oinarrizko bizi-euskarria eta bizi-euskarri aurreratua aktibatzea.
d) Funtsezko osagaitzat hartzen dira berehalako bihotz-biriketako bizkortzea eta desfibrilazio goiztiarra.

8.- Ibilgailu bat garraio sanitarioko baimen bati adskribatu ahal izateko, honako hauek egiaztatu behar dira lehendabizi:

a) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea baino ez da behar.
b) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea eta titularrak ibilgailu bat izatea jabetzan.
c) Ziurtagiri sanitarioa indarrean izatea eta titularrak ibilgailu bat izatea. Ibilgailua errentamenduan egon daiteke.
d) Ziurtagiri tekniko-sanitarioa indarrean izatea eta titularrak ibilgailu bat izatea. Ibilgailua jabetza-erregimenean zein finantza-errentamendu erregimenean egon daiteke.



9.- Uztailaren 23ko PRE/1435/2013 Aginduaren arabera emandako garraio sanitarioko baimenek, garraio-lanak non egiteko gaitzen dute?

a) Estatuan, ekintza-eremuaren gaineko inolako mugarik gabe.
b) Ibilgailuak inskribatuta dauden autonomia-erkidegoan, betiere, ibilgailuon ekintza-eremuari ezarritako mugak errespetatuta.
c) Europar Batasunean, ekintza-eremuaren gaineko inolako mugarik gabe.
d) Euskal Autonomia Erkidegoan, ekintza-eremuaren gaineko inolako mugarik gabe.

10.- PRE/1435/2013 Aginduaren arabera, nork emango ditu garraio sanitarioko baimenak?

a) Hiriarteko eskatu ahalako garraioko baimenak emateko eskumena duen organoak.
b) Osasun Saileko baimenak emateko eskumena duen organoak.
c) Lan Saileko baimenak emateko eskumena duen organoak.
d) Sustapen, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren baimenak emateko eskumena duen organoak.

11.- Zenbat denborarako ematen dira garraio sanitario publikoko edo garraio sanitario pribatu osagarriko baimenak?

a) Aurrez ezarritako hiru urteko epe baterako, beste hiru urtez luza daitekeena.
b) Eperik gabe ematen dira, betiere, kontuan hartuta baimenek ezin dutela gainditu ibilgailuari ezarritako antzinakotasun eskakizuna.
c) Ez dute aurrez ezarritako iraupen-eperik, baina baimenen baliozkotasuna hasierako baldintzak mantentzen direla aldian-aldian egiaztatzearen mende izan daiteke.
d) Gehienez ere zortzi urteko epe baterako, beste bi urtez luza daitekeena.

12.- Zer gertatzen da ziurtagiri tekniko-sanitarioa bertan behera uzten denean?

a) Ziurtagiriari atxikitako ibilgailuak hilabeteko epea du zigorra eragin duten akatsak zuzentzeko.
b) Ziurtagiriari atxikitako ibilgailua osasun-garraiorako ezgaituta geratzen da.
c) Ziurtagiriari atxikitako ibilgailuak, jasotako bisan zehazten den bezala, bi urteko epea du zigorra eragin duten akatsak zuzentzeko.
d) Ziurtagiriari atxikitako ibilgailuak sei hilabeteko epea du zigorra eragin duten akatsak zuzentzeko.

13.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa lortzeko, zer agiri aurkeztu behar dira organo eskudunean?

a) Inprimaki ofiziala, zirkulazio-baimena, bastidore-zenbakia eta ibilgailuaren titulartasuna.
b) Matrikula, ibilgailu mota, azterketa teknikoaren fitxa eta deskripzio-memoria.
c) Inprimaki ofizial normalizatua, matrikula, bastidore-zenbakia, ibilgailu mota eta ibilgailuaren antzinatasuna.
d) Ibilgailuaren ezaugarri teknikoak, ekipamendu sanitarioa eta langile-hornidura deskribatzen dituen deskripzio-memoria, azterketa teknikoaren fitxa, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta inprimaki ofizial normalizatua.

14.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa lortzeko, gutxienez hurrengo baldintzetako bat betetzen dela egiaztatu behar da. Zein?

a) Ibilgailuak matrikulatuta eta zirkulatzeko gaituta egon behar du, eta, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasita, ez du 10 urteko antzinatasuna gainditu behar.
b) Ibilgailuak matrikulatuta eta zirkulatzeko gaituta egon behar du, eta, matrikulazio-data edozein dela ere, ez du 10 urteko antzinatasuna gainditu behar.
c) Ibilgailuak matrikulatuta eta zirkulatzeko gaituta egon behar du, eta, matrikulazio-data edozein dela ere, ez du 2 urteko antzinatasuna gainditu behar.
d) Ibilgailuak matrikulatuta eta zirkulatzeko gaituta egon behar du, eta, lehen matrikulaziotik zenbatzen hasita, ez du 8 urteko antzinatasuna gainditu behar.

15.- Zer dio PRE/1435/2013 Aginduak garraio sanitarioko ibilgailuen ziurtagiri tekniko-sanitarioen gainean?

a) Autonomia-erkidego bakoitzak horretarako gaitutako organo eskudunean utzi behar direla gordailuan.
b) Ibilgailuak egoitza duen lekuko osasun-arloko organo eskudunean utzi behar direla gordailuan.
c) Ibilgailuaren dokumentazioarekin bat izan behar direla une oro.
d) Ibilgailuaren enpresa titularraren bulegoetan zaintzapean izan behar direla.

16.- Motorren funtzionamendu aldiez hitz egitean, sarrerari dagokionez, zein da diesel-motorren eta eztanda-motorren arteko funtsezko aldea?

a) Diesel motor baten sarrerak airea eta erregaia onartzen ditu.
b) Diesel motor baten sarrerak airea bakarrik onartzen du.
c) Diesel motor baten sarrerak erregaia bakarrik onartzen du.
d) Diesel motor baten sarrerak airea eta olioa onartzen ditu.

17.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa egiterakoan, behin aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, organo eskudunak behin-behineko ziurtagiri bat eman ahal izango du. Zenbat denborarako baliozkotasuna izango du?

a) Gehienez ere 2 hilabetekoa.
b) Gehienez ere 3 hilabetekoa.
c) Gehienez ere 2 urtekoa.
d) Gehienez ere 10 urtekoa.

18.- Hurrengo egoera hauetatik, zeinek eragingo du ziurtagiri tekniko-sanitarioa galtzea?

a) Ibilgailua birkalifikatzea zer helburu duen aintzat hartuta.
b) Ziurtagiria aurreikusitako epean ez berritzea.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) a) eta b) faltsuak dira.

19.- Hurrengoetatik, zeintzuk izan behar dira erregistratuta Ziurtagiri Tekniko Sanitarioen Erregistroan?

a) Ziurtagiri tekniko sanitarioak, bai indarrean daudenak bai indarrean ez daudenak.
b) Enpresaren titulartasun aldaketa guztiak.
c) Indarrean ez dauden ziurtagiriak bakarrik erregistratzen dira; indarrean daudenak, berriz, Osasun Sailean daude.
d) Ibilgailuen jardueran izandako bajak eta eteteak bakarrik erregistratzen dira.

20.- Zein da maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren xedea?

a) Errepideko garraio sanitarioko zerbitzuak egiteko ibilgailuen ezaugarri teknikoak ezartzea.
b) Errepideko garraio sanitarioko zerbitzuak egiteko ibilgailuen ekipamendu sanitarioa ezartzea.
c) Errepideko garraio sanitarioko zerbitzuak egiteko ibilgailuen langile-hornidura ezartzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

21.- 836/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako errepideko garraio sanitarioa, zer kategoriako garraio sanitarioko ibilgailuek egin dezakete?

a) A1 motako anbulantziak, A2 motako anbulantziak, B motako anbulantziak eta C motako anbulantziak.
b) A motako anbulantziak, B1 motako anbulantziak, B2 motako anbulantziak eta C motako anbulantziak.
c) A motako anbulantziak, B motako anbulantziak, C1 motako anbulantziak eta C2 motako anbulantziak.

d) A motako anbulantziak, B motako anbulantziak, C motako anbulantziak eta D motako anbulantziak.

22.- Hautatu erantzun zuzena:

a) B motako anbulantziak pazienteak ohatilan garraiatzera bideratuta daude.
b) B motako anbulantziak oinarrizko bizi-euskarria eta hasierako osasun-laguntza ematera bideratuta daude.
c) B motako anbulantziak garraio kolektibora bideratuta daude, bai eta presazkoak ez diren lekualdatzeetan gaixoak batera garraiatzeko egokituta ere.
d) B motako anbulantziak bizi-euskarri aurreratua ematera bideratuta daude.

23.- Ibilgailu bat anbulantzia bat dela argi eta garbi bereizteko aukera ematen duen kanpoko identifikazioan, non egon behar da kokatuta «anbulantzia» hitza?

a) «Anbulantzia» hitzaren inskripzioa anbulantziaren atzealdean baino ez da jarri behar.
b) «Anbulantzia» hitzaren inskripzioa anbulantziaren aurrealdean baino ez da jarri behar.
c) Ez da beharrezkoa «anbulantzia» hitzaren inskripzioa anbulantzian jartzea.
d) «Anbulantzia» hitzaren inskripzioa anbulantziaren aurrealdean zein atzealdean jarri behar da.

24.- Maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren arabera, zer dokumentu eraman behar dira nahitaez anbulantzian?

a) Erreklamazio-liburua eta pazientea eramateko kabinaren eta ekipamenduaren desinfekzioen erregistroa.
b) Desinfekzioen erregistroa eta Osakidetzako protokoloak.
c) Osakidetzako asistentzia-parteak eta protokoloak, eta desinfekzioen erregistroa.
d) Erreklamazio-liburua eta asistentzia-parteak.

25.- 836/2012 Errege Dekretuaren arabera, zein da garraio asistentzialeko prestazioak ematera bideratutako B motako anbulantzia asistentzialek izan beharreko gutxieneko langile-hornidura?

a) Gutxienez garraio sanitarioko profesionaltasun-ziurtagiria duen gidari bat eta laguntzaile funtzioak beteko dituen eta gutxienez titulazio bera izan behar duen beste langile bat.
b) Gutxienez Osasun Larrialdietako Teknikariaren lanbide-heziketako titulua duen gidari bat eta laguntzaile funtzioak beteko dituen eta gutxienez titulazio bera izan behar duen beste langile bat.
c) Gutxienez Osasun Larrialdietako Teknikariaren lanbide-heziketako titulua duen gidari bat eta beste teknikari bat, gutxienez garraio sanitarioko profesionaltasun ziurtagiria izan beharko duena.

d) Gutxienez Osasun Larrialdietako Teknikariaren lanbide-heziketako titulua duen gidari bat eta Graduko titulua duen erizain bat.

26.- 836/2012 Errege Dekretuaren arabera, besteak beste, zer eskakizun bete behar ditu zelula sanitarioak?

a) Beira zeharrargiak izatea. Garraio kolektiboko ibilgailuen kasuan, beharrezkoa denean, pazientearen intimitatea ziurtatuko duen beste gailu bat aukeratu daiteke.
b) Karrozerian aplikatutako neurri isotermikoak eta intsonorizazio-neurriak.
c) Materialak, tresnak eta arropa zuria gordetzeko armairuak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

27.- 836/2012 Errege Dekretuaren arabera, helburu humanitarioarekin laguntza sanitarioko zerbitzuak ematea jarduera nagusi duten erakundeetan, zer baldintza bete behar dituzte gidari-eginkizunak betetzen dituzten boluntarioek?

a) Ez dute titulurik edo ziurtagiririk izan behar.
b) Gutxienez Osasun Larrialdietako Teknikariaren lanbide-heziketako titulua izan behar dute.
c) Gutxienez garraio sanitarioko profesionaltasun ziurtagiria izan behar dute.
d) Gutxienez garraio sanitarioko profesionaltasun ziurtagiria eta Biktima Anitzeko Gertaerena izan behar dituzte.

28.- 836//2012 Errege Dekretuaren arabera, besteak beste, zer eskakizun bete behar ditu zelula sanitarioak? Hautatu erantzun OKERRA:

a) Beira zeharrargiak izatea. Garraio kolektiboko ibilgailuen kasuan, beharrezkoa denean pazientearen intimitatea ziurtatuko duen beste gailu bat aukeratu daiteke.
b) Pazientea eramateko kabinako klimatizazioa eta argiztapena eta gidariaren kabinakoak independenteak izan behar dira.
c) Asistentziazkoak ez diren anbulantziek Koordinazio Zentrora datuak transmititzeko eta bertatik GPS bidez lokalizatzeko gailuak ere izan behar dituzte.
d) Materialak, tresnak eta arropa zuria gordetzeko armairuak.

29.- Automobilaren sektorean, ibilgailuak zer erabilerarako sortu diren aintzat hartuta sailka daitezke. Hori horrela, zer hiru talde handitan bana daitezke?

a) Ibilgailu industrial arinak, ibilgailu industrial astunak eta lehiaketako ibilgailuak.
b) Bolumen bakarreko, bi bolumeneko eta hiru bolumeneko ibilgailuak.
c) Konpartimentuen konfigurazioren, kanpoko formaren konfigurazioaren eta prestazioen konfigurazioaren arabera sailkatutako ibilgailuak.
d) Ibilgailu industrialak, ibilgailu bereziak eta turismoak.



30.- Bi bolumeneko ibilgailuek, argi eta garbi bereizitako zer bi eremu dituzte?

a) Bolumen fronto-zentrala eta atzealdea.
b) Motorraren konpartimentua eta maletategia.
c) Aurrealdea eta pazientea eramateko kabina.
d) Txasisaren aldea eta plataforma.

31.- Hurrengo elementu hauetatik, zein dira ibilgailuaren segurtasun aktiboaren parte?

a) Airbagak.
b) Alboetako barrak.
c) ASR sistema.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

32.- ESP sistema ibilgailuaren segurtasun-sistema elektroniko bat da. Zein da bere eginkizun nagusia?

a) Pneumatikoen itsaspen-baldintzak gutxitzean gurpilak beren gainean irristatzea saihestea.
b) Gurpilei itsaspen-baldintzek ahalbidetzen dutena baino potentzia handiagoa aplikatzean gurpilak beren gainean irristatzea saihestea.
c) Noranzkoa ez galtzea helburu hartuta, ibilgailua mugitzen ari den bitartean frenoak blokeatzea saihesten duen sistema bat da.
d) Bat-bateko bolante-biraketa bat gertatu delako bihurgune bat hartzean ibilgailuak irrist egitea saihesten duen sistema bat da.

33.- Automobilaren prebentziozko segurtasunaz ari garenean, zertaz ari gara?

a) Gidariarengan ingurune eroso bat sortzen duten ibilgailuaren ezaugarri eta gailu guztiez.
b) Balizko istripuak prebenitzeko eta saihesteko gailuen multzoaz.
c) Zirkulazio-araudiaren arabera, prestakuntza-ikastaro guztiez, bereziki gidarien espezializazio-ikastaroak.
d) Istripuak eragin ditzaketen egoerak saihesteko diseinatuta dauden ABS, ASR eta ASP sistemei.

34.- Ibilgailu batean, non dago kokatuta inertzia-bolantea?

a) Pistoiaren buruan egindako eztarrietan.
b) Frenoen ondoan. Bihurgune bat hartzean ibilgailua irristatzea eragozten du lurraren baldintzak okertzean.
c) Frenoen ondoan. Irrist eginez gero gurpilak mugitzea eragozten du.
d) Birabarkiaren mutur batean.

35.- Zein dira pistoiaren segmentuaren funtzioak?

a) Zilindroaren eta pistoiaren arteko estankotasuna ziurtatzea, olioa konpresio-ganberara igarotzea saihestea eta beroa hustea erraztea.
b) Gasen hedapenetik eta higiduratik sortutako indarra birabarkira transmititzen du.
c) Pistoiaren goranzko eta beheranzko mugimendua mugimendu birakari bihurtzen du birabarkian.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36.- Zein da balantzinen egitekoa?

a) Balbulak irekitzea.
b) Balbulak ixtea, besterik ez.
c) Mugimendua taketik malgukira transmititzea.
d) Zilindroaren sarrera eta ihesa ahalbidetzea.

37.- Zer elementuk osatzen dute, besteak beste, hozte-zirkuitua?

a) Erradiadorea, takea, ponpa eta termostatoa.
b) Espantsio-botila, purgagailuak eta irekiera-balbula.
c) Erradiadorea, zorroak, purgagailuak eta likido hozgarria.
d) Erradiadorea, espantsio-botila eta likido lubrifikatzailea.

38.- Automobilaren zein gailuren egitekoa da likido hozgarriaren tenperatura erregulatzea eta hozgarriak erradiadorerantz zirkulatzea galaraztea?

a) Espantsio-ponpa.
b) Purgagailuak.
c) Termostatoa.
d) Kontrol-elementuak.

39.- Hurrengo ezaugarri hauetatik, zein dira automobiletako olio lubrifikatzaileen adierazgarrienak?

a) Biskositatea, itsaskortasuna eta egonkortasun kimikoa.
b) Izozte-puntua, sugar-puntua eta irakite-puntua.
c) Detergentzia eta dispertsioa, lubrifikazio-zilindrada erlazioa.
d) Egonkortasun kimikoa eta fisikoa.

40.- Olio-ponpari buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Olio-ponpa da zirkuituan olio-emaria behar baino handiagoa izatea eta presio egokian egotea bermatu behar duen elementu mekanikoa.
b) Olio-ponpak zirkuituko presioa fabrikatzaileak aurrez ezarritako balio bateraino mugatzen du, 5 kg/cm^2 ingurukoa izan ohi dena.
c) Olio-ponpak olio-depositu bat eta iragazki bat ditu.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

41.- Ardatz eragilea edo transmisio-ardatza automobilaren zati bat da. Zer ibilgailu-motatan erabiltzen da?

a) Aurreko motorra duten ibilgailuetan bakarrik.
b) Aurreko eta atzeko motorra duten ibilgailuetan bakarrik.
c) Atzeko motorra eta aurreko trakzioa duten ibilgailuetan bakarrik.
d) Aurreko motorra eta atzeko trakzioa duten ibilgailuetan eta lau gurpileko trakzioa duten ibilgailuetan.

42.- Automobil baten palierrei buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Palierrak mutur batetik diferentzialaren planetarioei lotuta daude eta bestetik gurpilen abatzei.
b) Palierrak abiadura-kaxaren barruan dauden ardatz batzuei lotutako urkilak dira.
c) Palierrak inertzia-bolantearen eta enbrage-mazoaren artean kokatuta daude.
d) Gidariak enbragea zapaltzen duenean enbragearen diafragma sakatzeaz arduratzen diren gailuak dira palierrak.

43.- Motelgailuak automobilaren parte dira. Zer funtzio betetzen dute?

a) Bata bestearen gainean jarritako eta besarkagailuen bidez elkartutako altzairuzko xaflen multzoa dira.
b) Motelgailuek inpaktuak xurgatzen dituzte, gurpila lurrarekin etengabeko kontaktuan egon dadin.
c) Motelgailuek elementu elastikoen oszilazioak kontrolatzen dituzte eta ibilgailuaren martxa egonkortzen laguntzen dute.
d) Motelgailuek bihurguneetan ibilgailua kulunkatzea saihesten dute.

44.- Ibilgailu baten esekidura-sistemaren barruan, zer motako esekidura da McPherson motako esekidura?

a) Aurrealdekoa bakarrik.
b) Aurrealdekoa eta atzealdekoa.
c) Hidropneumatikoa bakarrik.
d) Ardatz zurruneko esekidura.

45.- Zer funtzio dute automobilaren direkzio-bieletek?

a) Mangetaren eta direkzio-kaxaren arteko lotura elastiko bihurtzea.
b) Direkzio-kaxa mahuka batekin lotzea errotula baten bidez, mugimendua transmititzeko eta direkzioaren lerrokadura erregulatzeko.
c) Gurpila eustea, lurrarekiko inklinazio batekin.
d) Mahukari inklinazio bat ematea, gurpila ez dadin lurrarekiko guztiz perpendikularki bermatu.

46.- Automobil baten freno-diskoei buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Abiadura murrizteko elkarren artean marruskatzen duten elementuak dira.
b) Pastillak barne hartzen dituzte eta bertan muntatzen da eragingailu hidraulikoa.
c) Autoaireztatuek zirrikitu erradialak dituzte eginda, beroa errazago ebakuatzeko.
d) Freno-pastillei presioa egiten diete, pedala sakatzean ibilgailua geldiarazteko.

47.- Hurrengoetatik, zein propietate izan behar du automobil bateko freno-likidoak?

a) Iraunkortasun onargarria izatea (lau urtean behin edo 150.000 kilometro egitean ordezkatzea komeni da).
b) Presioa murriztea ahalbidetzen duten gehigarriak onartzea.
c) Irakite-tenperatura baxua eta izozte-tenperatura altua izatea.
d) Irakite-tenperatura altua eta izozte-tenperatura baxua izatea.

48.- Zer osagai ditu ibilgailu baten gurpil metalikoak?

a) Haguna eta diskoa.
b) Gomazko estaldura iragazgaitz eta bulkanizatu bat.
c) Pneumatikoa eta haguna.
d) Diskoa eta pneumatikoa.

49.- Zer funtzio betetzen ditu, besteak beste, pneumatiko baten errodatze-bandak?

a) Lurrarekiko itsaspena, luzetarakoa zein zeharkakoa, eta talkarekiko eta higadurarekiko erresistentzia.
b) Norabide ona bermatzea.
c) Sonoritatea murriztuz martxa erasoagoa izan dadin laguntzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

50.- Zer ondorio ditu, besteak beste, pneumatikoen presioa baxua izateak?

a) Karkasaren ehunaren tentsioa handiegia izatea eta itsaspena galtzea.
b) Eskulturaren hondoan arrailak agertzea eta orpoetan nekea.
c) Egonkortasuna galtzea eta errodatze-bandaren erdialdean higadura handiagoa izatea.
d) Kontsumoa handiagoa izatea eta gehiegizko malgutasuna.

51.- Zer osagai ditu ibilgailuaren sistema elektrikoaren karga-zirkuituak?

a) Pizteko giltza, errelea eta bateria.
b) Abiatze-motorra, alternadorea eta bobinak.
c) Banagailua, errelea eta alternadore bat.
d) Alternadore bat, bateria bat eta erreguladore bat.

52.- Zer zirkuitu elektriko dira maniobra-zirkuituaren parte?

a) Posizioko zirkuitu elektrikoak, gurutzatze-argia eta norabide-argiak.
b) Norabide-argiak, freno-argiak eta atzera-martxako argia.
c) Laino-argiak eta freno-argiak.
d) Atzera-martxako argia, norabide-argiak eta gurutzatze-argiak.

53.- Zer osagai ditu, besteak beste, automobil baten ABS Bosch sistemak (lau kanal)?

a) Portafreno platera eta eragingailu hidraulikoa.
b) Tenkagailu automatikoa eta gurpil bakoitzaren biraketen berri ematen duen sentsore mugikor bat gurpil bakoitzean.
c) Gurpil foniko mugikor bat eta sentsore finko bat gurpil bakoitzean.
d) Elektrobalbulak eta zapatak dituen multzo hidrauliko bat.

54.- Mezu aldakorreko panelei buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da OKERRA?

a) Balizko arriskuei buruzko informazioa eta ohartarazpenak ematen dituzte.
b) Nahitaez bete beharreko gomendioak edo jarraibideak ematen dituzte.
c) Mezua 45 minututik behin aldatu behar dute.
d) Zirkulazioa unean uneko egoeretara egokituz erregulatzen dute.

55.- Semaforoei buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Aldizkako argi hori batek gidariak kontu handiz jokatzera behartzen ditu.
b) Aldizkako argi berde batek gidariak kontu handiz jokatzera behartzen ditu.
c) Aldizkako argi hori batek denbora batez pasatzea debekatzen du.
d) Aldizkako argi gorri batek gidariak kontu handiz jokatzera behartzen ditu.

56.- Zirkulazio-arauen arabera, zer helburu dute arau-seinaleek?

a) Betebeharrak, mugak edo debekuak adieraztea.
b) Garaiz hautematen zaila den arrisku baten gertutasuna eta izaera adieraztea.
c) Bide-erabiltzaileari erabilgarriak izan daitezkeen zenbait argibide ematea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

57.- Hurrengo faktoreetatik, zein da zirkulazio-istripuen kausa nagusia?

a) Ibilgailu faktorea.
b) Giza faktorea.
c) Gehiegizko karga edo karga gaizki banatuta egotea.
d) Bidea.

58.- Bide segurtasuneko arauen arabera, hurrengo kasuetatik, zeinetan zirkulatu behar da neurrizko abiaduran eta, beharrezkoa bada, ibilgailua gelditu ere egin behar da?

a) Bidera hurbileko sarbidea duten eraikinak dauden zatietan.
b) Laino trinkoa, euri zaparradak, elurra, hauts-hodeiak edo kea egonez gero.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) a) eta b) okerrak dira.

59.- Ibilgailuaren dokumentazioari eta zirkulazio-baimenari buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Agiri originala bakarrik eraman daiteke.
b) Fotokopia bat eraman daiteke.
c) Agiri originalak eraman behar dira edo, bestela, behar bezala konpultsatutako fotokopiak.
d) Ez da derrigorrezkoa ibilgailuan eramatea.

60.- Depresioak zer ondorio izan ditzake, besteak beste, gidariarengan?

a) Suminkortasun, antsietatea eta segurtasun-gabezia handitzea.
b) Agresibitatea, oldarkortasuna eta lehiakortasuna areagotzea.
c) Seinaleak eta zirkulazio-arauak errespetatzeko joera areagotzea.
d) Abiadura okerrago kontrolatzea, gidariak behar bezala ez gidatzea eragiteraino.

61.- Bihurguneetan ibilgailuak jasaten duen indar zentrifugoari buruzko hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Ibilgailuak jarraitu nahi duen lerro kurbatuak zehazten du, eta bihurgunearen barrualdera bultzatzen du ibilgailua.
b) Ibilgailuak jarraitu nahi duen lerro zuzenak zehazten du, eta bihurgunearen kanpoaldera bultzatzen du ibilgailua.
c) Kurbaren zabaltasunak zehazten du indar zentrifugoa, eta ibilgailua barrurantz bultzatzen du.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

62.- Zer aukera ematen dio erabiltzaileari laringoskopio optikoak (Airtraq modeloa)?

a) Trakearen barrualdea ikusteko aukera ematen du bisore optiko argiztatuaren bitartez.
b) Arnasbidea isolatzea ahalbidetzen du.
c) Airtraq laringoskopioan ikus daitekeen irudia pantaila eramangarri batean bistara daiteke.
d) Arnasbidea isolatzeko gailu bat da, oxigenazio pasiborako soluzio bat eskaintzen duena.

63.- Arnasgailuaren bidez egiten den aireztapen mekanikoa bi motakoa izan daiteke: inbaditzailea eta ez-inbaditzailea. Bada, bi mota horietako metodoekin lotutako hurrengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Metodo inbaditzaileak intubazioarekin edo intubaziorik gabe erabil daitezke.
b) Metodo inbaditzaileek pazientearen intubazioa eskatzen dute, eta, ez-inbaditzaileak, berriz, maskararekin erabiltzen dira.
c) Metodo ez-inbaditzaileek pazientearen intubazioa eskatzen dute, eta, inbaditzaileak, berriz, maskararekin erabiltzen dira orokorrean.
d) Metodo ez-inbaditzaileak intubazioarekin edo intubaziorik gabe erabil daitezke.

64.- Zer terapia egiteko aukera ematen du, besteak beste, monitore desfibriladore batek?

a) Desfibrilazioa, kardiobertsio elektrikoa eta tenperaturaren balorazioa.
b) Kardiobertsio elektrikoa eta barneko taupada-markagailu funtzioa.
c) Kanpoko taupada-markagailu funtzioa, kardiobertsio elektrikoa eta desfibrilazioa.
d) Konstante guztiak monitorizatu eta desfibrilazioa egiten du, besterik ez.

65.- Intubazio orotrakeal bat egin behar denean, arau orokor gisa, eragin azkar eta laburreko zer blokeatzaile neuromuskular erabili behar da?

a) Bekuronioa.
b) Fentaniloa.
c) Midazolama.
d) *Suxamethonium chloride* (Succinilcolina).

66.- Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, zer da medikamentu baten ondorio kaltegarri (*RAM* gazteleraz) bat?

a) Helburu terapeutiko, profilaktiko edo diagnostikoekin erabilitako dosien aurrean izandako ondorio kaltegarri eta nahi gabeko oro.
b) Medikazioa hartzeak eragiten duen ondorio oro, kaltegarria izan edo ez.
c) Medikazioa hartzearen ondoriozko erreakzioak pazientearen heriotza eragiten duenean soilik hartzen da kasu bat medikamentu baten ondorio kaltegarritzat, medikazioa nahita edo nahi gabe hartu den aintzat hartu gabe.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

67.- Zer bide erabil daiteke adrenalina emateko?

a) Zain barneko bidea, besterik ez.
b) Zain barneko bidea, larruazalpekoa, inhalatorioa eta endotrakeala.
c) Bide guztietatik eman daiteke.
d) Zain barneko bidea, larruazalpekoa, ahokoa, inhalatorioa eta endotrakeala.

68.- Hezur-barneko ziztada bat eman behar badiozu 4 urteko haur bati, zein izan beharko litzateke ziztada emateko hautatutako lekua?

a) Bularrezurraren beheko zatia.
b) Tibiaren maleoloa.
c) Tibiaren tuberositatea.
d) Femurraren inguruko gunean.

69.- Konorterik gabe dagoen hiru urteko haur baten kasuan, zenbat denboraz egiaztatuko dugu arnasketa?

a) Gehienez ere 10 segundoz.
b) Gehienez ere 5 segundoz.
c) Gehienez ere 2 segundoz.
d) Gehienez ere 8 segundoz.

70.- Biktima Anitzeko Gertaera (IMV) batean, zein da erreskate-noriaren definizioa?

a) Anbulantzia-parketik kargako posturaino egindako zirkuitua.
b) Kargako gunetik helmugako osasun-zentroraino egindako zirkuitua.
c) Osasun-zentrotik gertaeraren gunera egindako zirkuitua.
d) Biktimak inpaktu-puntutik barruti sanitariora eramatea ahalbidetzen duen dispositiboa.

71.- Biktima Anitzeko Gertaera (IMV) batean, zer funtzio izango ditu, besteak beste, garraioko eta komunikazioko arduradunak?

a) Langile sanitarioari biktima kopuruaren eta biktimen arteko lehentasunaren gaineko informazioa ematea.
b) Erreskateko noria (*noria de camilleo* gazteleraz) gainbegiratuko du, eta, beharrezkoa balitz, antolatu ere egingo du.
c) Lekualdatzeko prestatutako biktimen helmuga zein den galdetuko dio Koordinazio Zentroari.
d) Asistentzia-eremuan elkarlanean ari diren taldeen lana gainbegiratuko du.

72.- Hautatu erantzun zuzena:

a) Pazientea mobilizatu aurretik, immobilizatu egin behar da, nahiz eta bihotz-gelditze egoera bat edo sute- edo leherketa-arriskua egon.

b) Pazientea immobilizatu aurretik, mobilizatu egin behar da, nahiz eta bihotz-gelditze egoera bat edo sute- edo leherketa-arriskua egon.

c) Pazientea mobilizatu aurretik, immobilizatu egin behar da, bihotz-gelditze egoera bat edo sute- edo leherketa-arriskua dagoenean izan ezik.

d) Pazientea immobilizatu aurretik, mobilizatu egin behar da, bihotz-gelditze egoera bat edo sute- edo leherketa-arriskua dagoenean izan ezik.

73.- Haustura bat dagoenean, behin pazientearen lesio-mekanismoa baloratu eta bizi-funtzioak aseguratu ondoren, zer urrats jarraitu behar ditu jarduketak?

a) Pazientea esploratu, immobilizatu eta mobilizatu behar da.

b) Istripua izan duena galdekatu behar da, baita ikuskatu, haztatu eta mobilizatu ere.

c) Haustura eta pultsu distalak baloratu behar dira, konpresio-elementuak kendu, eragindako gorputz-adarra zuzen jarri (egokia bada), pazientea immobilizatu eta, azkenik, egoera berriz ebaluatu behar da.

d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

74.- Zertarako balio du KENDRICK motako gailuak?

a) Bizkarrezurra immobilizatzeko.

b) Botaka eginez gero, arnasbidea isolatzeko.

c) Argia eta akoplatutako kamera bat dituen azken belaunaldiko laringoskopioa da.

d) Odoleko karbono monoxido maila baloratzeko aukera ematen du.

75.- Inkubagailu baten barruan dagoen jaioberri bat lekualdatzean, zer alderdi garrantzitsu hartu behar da kontuan? Hautatu erantzun zuzena:

a) Tenperatura egokitzea, tenperatura aldaketekiko oso sentikorrak baitira.

b) Inguruneko zaratak egokitzea, zaratarekiko oso sentikorrak baitira.

c) Asistentzia-eremuko bibrazioak egokitzea.

d) Beti errepidez egingo da, altitudea saihesteko, kaltegarria izan baitaiteke.

76.- Haurdun dagoen eta berehala erditu behar EZ duen emakume bat lekualdatzean, zein da posizio egokia?

a) Ahoz gora etzanda, burua ohatilaren oinaldean dela.

b) Eskuineko alboko etzanera.

c) Ahoz gorako etzanera.

d) Ezkerreko alboko etzanera.

77.- Paziente bat langile sanitario batetik bestera transferitzeko orduan, zer motakoa izan behar da transferentzia hori?

a) Ahozkoa bakarrik.
b) Dokumentatua bakarrik.
c) Ahozkoa eta dokumentatua.
d) Idatzizkoa.

78.- Oro har, noiz erabiltzen da erreskateko olana bezalako material bat?

a) Lesio traumatikorik ez duten pazienteekin.
b) Espazio konfinatuetatik erreskatatu beharreko eta bizkarrezurra immobilizatu behar zaien pazienteekin.
c) Lesio traumatikoak dituzten pazienteekin.
d) Egokia da helikopteroetan, uretan, goi-mendietan... erabiltzeko.

79.- Alboko lepokoak erabiltzeko premisei dagokienez (Philadelphia motako zurrunak), zer izan behar dugu kontuan?

a) Alboko mugimenduak mugatu gabe, buruaren flexo-hedapeneko mugimenduak ahalbidetzen dituztela.
b) Alboko mugimenduak mugatuta, buruaren flexo-hedapeneko mugimenduak ahalbidetzen dituztela.
c) Alboko mugimenduak mugatuta, buruaren flexo-hedapeneko mugimenduak eragozten dituztela.
d) Alboko mugimenduak mugatu gabe, buruaren flexo-hedapeneko mugimenduak eragozten dituztela.

80.- Oinarrizko bizi-euskarriko asistentzia-protokoloaren arabera, konbultsio kasuan, nola definitzen da estatus epileptikoa?

a) Hiru minutu baino gutxiagoko gertakari paroxistiko automugatua.
b) Bost minutu baino gutxiagoko krisi epileptikoa.
c) Zenbait aldiz errepikatzen diren krisiak dira, jasaten dituenari batetik bestera errekuperatzeko aukera ematen ez diotenak.
d) Zenbait aldiz errepikatzen diren krisiak dira, jasaten dituenari batetik bestera errekuperatzeko aukera ematen diotenak.

81.- Oinarrizko bizi-euskarriko asistentzia-protokoloaren arabera, sinkope bati aurre egiteko laguntza ematean, zeintzuk dira miaketa egiteko kontuan hartu beharreko gutxieneko alderdiak?

a) Bihotz-maiztasuna, betetze kapilarra, goiko gorputz-adarretako pultsua.
b) Pazienteak arnasa nola hartzen duen, arnas-maiztasuna eta pultsioximetria.
c) Aortako disekzio bat izan daitekeela pentsaraz dezakeen bularreko, bizkarreko edo abdomeneko mina baldin badu pazienteak, bi besoetan hartu behar zaio tentsio arteriala.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

82.- Oinarrizko bizi-euskarriko asistentzia-protokoloaren arabera, trauma larriagatiko pediatriako larrialdietan, nola baloratzen da 1 eta 10 urte arteko haurren hipotentsioa?

a) Presio arterial sistolikoa < 70 + (adina urteetan x 2).
b) Presio arterial sistolikoa < 60 + (adina urteetan x 2).
c) Presio arterial sistolikoa > 70 + (adina urteetan x 2).
d) Presio arterial sistolikoa ≤ 90.

83.- Oinarrizko bizi-euskarriko asistentzia-protokoloaren arabera, bizkarrezur-muineko lesio traumatikoetan, zer zantzu ditu shock neurogenikoak?

a) Takikardia, takipnea, zurbiltasuna eta gehiegizko izerditzea bezalako shock zantzuak.
b) Takikardia, bradipnea, zurbiltasuna eta larruazal lehorra bezalako shock zantzuak.
c) Bradikardia eta larruazal heze eta hotza bezalako shock zantzuak.
d) Shock-zantzuak, takikardia, larruazal lehor eta berorik gabe.

84.- Hurrengoetatik, zeintzuk daude Biktima Anitzeko Gertaera (IMV) bateko biktimen artean lehentasuna adierazteko bereizgarrien artean?

a) Koloretako zintak, triaje-txartelak, koloretako olanak eta seinaleztapen-banderatxoak.
b) Ebaluazio pediatrikoaren triangelua, SHORT eta START triajeak.
c) Osakidetzaren Emergentzietako triaje-txartelak, bakar-bakarrik.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

85.- Lehentasunezko errepide-sarearen nomenklaturan, zer errepideri dagokio Kantauriko Autobidea izena? Hautatu erantzun zuzena:

a) N-240.
b) AP-1.
c) A-8.
d) N-634.

86.- Lehentasunezko errepide-sarearen nomenklaturan, zer errepideri dagokio Nafarroa-Gipuzkoa autobidea izena? Hautatu erantzun zuzena:

a) AP-68.
b) A-8.
c) AP-1.
d) A-15.

87.- Hurrengo kasuetatik, zein erabiltzailerengan erabiliko dugu Fowler-en posizioa anbulantzian?

a) Arnasteko arazoak dituzten erabiltzaileengan.
b) Bihotzeko arazoak dituzten erabiltzaileengan.
c) Zunda nasogastrikoak jartzean.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

88.- Zenbat denborarako ematen da ziurtagiri tekniko-sanitarioa?

a) Bi urterako ibilgailu berrien kasuan eta, ostean, bigarren urtetik ibilgailuak hamar urte bete arte, urtero berritu behar da.
b) Bi urterako ibilgailu berrien kasuan eta, ostean, bigarren urtetik ibilgailuak hamar urte bete arte, bi urtetik behin berritu behar da.
c) Urtebete, ibilgailua berria edo matrikulazio berrikoa den kontuan hartu gabe.
d) Urtebeterako ibilgailu berrien kasuan eta, ostean, bigarren urtetik ibilgailuak hamar urte bete arte, bi urtero berritu behar da.

89.- 836/2012 Errege Dekretuak garraio sanitarioko ibilgailuen oinarrizko betekizun eta baldintza teknikoen inguruan ezarritakoa aintzat hartuta, hautatu erantzun zuzena:

a) Gutxienekoak dira, eta enpresek ezin dituzte hobetu zerbitzuak ematean.
b) Autonomia-erkidegoetako administrazioek ez dute beste betekizun eta baldintza teknikorik eskatzerik.
c) Gutxienekoak dira, eta enpresek hobetu egin ditzakete zerbitzuak ematean.
d) Autonomia-erkidegoetako administrazioek ez dute langile-hornidurarekin lotutako beste betekizunik eskatzerik.

90.- Organo eskudunak ukatu egingo du ziurtagiri tekniko-sanitarioa, memorian jasotako zehaztapenak ez badatoz bat honako honetan ezarritakoarekin:

a) PRE 1435/2013 AGINDUA, uztailaren 23koa.
b) 8/1998 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
c) 1428/2004 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa.
d) 836/2012 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa.

91.- Zer elementuk osatzen dute, besteak beste, direkzio-sistema?

a) Direkzio-zutabeak, bolanteak eta errotulak.
b) Palierrak eta errotulak.
c) Ardatz eragileak edo transmisio-ardatzak eta bolanteak.
d) Zorroek eta direkzio-bieletek.

92.- Garraio sanitarioko baimenak, zein erregistrotan dauden ibilgailuak gaituko ditu garraioak egiteko?

a) Osasun Erregistroan matrikularen inskripzioaren bidez lotetsita dauden ibilgailuak.
b) Garraio Enpresen eta Jardueraren Erregistroan matrikularen inskripzioaren bidez lotetsita dauden ibilgailuak.
c) Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko Erregistroan matrikularen inskripzioaren bidez lotetsita dauden ibilgailuak.
d) Garraio eta Mugikortasun Erregistroan matrikularen inskripzioaren bidez lotetsita dauden ibilgailuak.

93.- Lehentasunezko errepide-sarearen nomenklaturan, zer errepideri dagokio Madril-Donostia Iparraldeko Autobidea izena? Hautatu erantzun zuzena:

a) N-240
b) N-1
c) AP-8
d) N-634

94.- Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritza-agenteek alkoholagatiko balizko intoxikazioak detektatzeko ezartzen diren probak egin ahal izango dituzte:

a) Edozein unetan eta bidearen edozein erabiltzaileri edo gidariri.
b) Ageriko sintomarik gabe edozein ibilgailu gidatzen ari direnei, alkoholemiaren prebentzio-kontrolen programetatik kanpo.
c) Alkoholemiako prebentzio-kontrolen programen barruan, agintaritzak ibilgailu bat gidatzen ari diren pertsonei.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

95.- Zenbateko balizkotasuna izango du ziurtagiri tekniko-sanitarioak?

a) Hiru urtekoa, ibilgailu berrientzat, eta urtekoa, hirugarren urtetik aurrera.
b) Bi urtekoa, ibilgailu berrientzat, eta urtekoa, hirugarren urtetik aurrera.
c) Bi urtekoa, ibilgailu berrientzat, eta urtekoa, bigarren urtetik aurrera.
d) Hiru urtekoa, ibilgailu berrientzat, eta urtekoa, bigarren urtetik aurrera.

96.- Zertaz arduratzen da sarrera-kolektorea? Hautatu erantzun zuzena.

a) Erretako gasak zilindroaren kanpoaldetik ihes-hodiraino husteaz arduratzen da.
b) Sarrerako gasak edo airea zilindroaren kanpoalderaino bideratzen ditu, zilindroa behar bezala betetzea eragozten duten kontrapresioak saihesteko.
c) Erretako gasak zilindro barnetik ihes-hodiraino husteaz arduratzen da.
d) Sarrerako gasak edo airea zilindroaren barruraino bideratzen ditu, zilindroa behar bezala betetzea eragozten duten kontrapresioak sor ez daitezen.

97.- Mugimendua lasaierarik gabe transmitituz, zer elementuk egiten dute malgukia eta direkzio-kaxaren arteko lotura?

a) Errotulek.
b) Direkzio bieletek.
c) Tiraderek.
d) Malgukiek.

98.- Lerro jarraitu batez inguratutako lur-zerrenda zeihar paraleloek markatutako gune batek, zer esan nahi du?

a) Trenbide-pasagune baten hurbiltasuna.
b) Ibilgailu jakin batzuentzat gordetako errei baten hasiera adierazten du.
c) Geratze gune bat adierazten du.
d) Eremu horretan ezin dela ibilgailu batekin sartu adierazten du.

99.- Zein kasutan egingo dugu "eskobatze itsua" ("barrido a ciegas") 5 urteko haur baten intsuflazio eraginkorra lortzeko zailtasunak daudenean?

a) Arnasbideak ireki ondoren.
b) Ez dira hatzarekin "ekorketa itsuak" egiten.
c) Erreskateko 5 intsuflazio egin ondoren.
d) Masailezurreko trakzio-maniobra egin aurretik.

100.- Osasun Sailaren 2021-2024ko Esparru Estrategikoan aurreikusitakoaren arabera, hauek dira gaixotasun neurodegeneratiboak eta neuromuskularrak:

a) Kronikoak.
b) Progresiboak.
c) Sendaezinak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

101.- Saiakera autolitiko baten diazepama kantitate handitan hartu duen pertsona batengana zoazte larrialdi batean. Zer sendagai erabil daiteke antagonista gisa?

a) Flumazenila.
b) Naloxona.
c) Metilprednisolona.
d) Fentaniloa.

102.- Zein dira hausturetan izaten ditugun konplikaziorik ohikoenak?

a) Odoljarioa areagotzea, minagatiko sinkopea pairatzea eta infekzio-arriskua.
b) Haustura itxi bat haustura ireki bihur daiteke.
c) Infekzio orokorra eta hezurra sendotzeko atzerapena.

d) Paraplegia edo hemiplegia.

103.- Disnea bat duen paziente bat aztertzeko orduan, eta oinarrizko bizi-euskarriko disnea kasuetarako laguntza-protokoloaren arabera, larritasun-sintomak ebaluatzen ditugunean, alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan:

a) Buruko mina duen.
b) Kirola egiten ari zen.
c) Intsektu batek hozka egin dion.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

104.- Konorterik gabe dagoen heldu baten arnasketa baloratzeko orduan, ohikoa ez den, motela den eta zaratatsua den arnasketaren aurrean, zein izango da gure jarduera?

a) Arrisku gehiago ez badago, utzi aurkitu zuen posizioan.
b) Jarri segurtasuneko albo-posizioan.
c) Prestatu BBB hasteko.
d) Erregulartasunez birbaloratu, BBB hasi gabe.

105.- Lur bustiaren gainean zirkulatzerakoan, errodadura-bandak bonba baten moduan jokatzen du, eta, ondorioz, pelikula apurtu eta bertan zizelkatutako marrazkian zehar kanporatzen du. Emaria handitu egiten da pneumatikoaren abiadura handitu ahala, eta presioa sor dezake kanporatzen ari den uretan. Eskulturaren ildoetan aplikatutako presioa errodadura-bandak lurzoruan duen aztarnaren presio espezifikoaren berdina denean, pneumatikoak flotatu egiten du, eta, ondorioz, trakzioa eta norabidea galdu egiten dira. Beraz, fenomeno hori saihesteko, ezinbestekoa da:

a) Errodadura-banda egoera onean egotea, ezarritako higadura-muga ez gainditzea, puzte-presio egokiari eustea eta abiadura moderatuan zirkulatzea, lurzoru bustia dagoenean.
b) Errodadura-banda hautsita ez egotea, ezarritako higadura-muga ez gainditzea, puzte-presioa altu mantentzea eta abiadura moderatuan zirkulatzea, lurzoru bustita dagoenean.
c) Errodadura-bandaren egoera onargarria izatea, ezarritako higadura-muga ez gainditzea, puzte-presio egokiari eustea eta lurzoru bustia dagoenean gelditzea.
d) Errodadura-banda egoera onean egotea, ezarritako higadura-muga ez gainditzea, puzte-presioa altu mantentzea eta lurzoru bustiko egoerak daudenean gelditzea.

106.- Hozte-zirkuituan jarritako zulo batzuk dira, metalezko edo plastikozko torlojuz taponatuak. Zirkuituko airea ateratzeko balio dute, hala, motorraren hozte-sistemak behar bezala ez funtzionatzea eragingo luketen poltsak saihesteko:

a) Zorroak.
b) Espantsio-botila.
c) Purgagailuak.

d) Haizagailuak.

107.- Hona hemen lekualdatutako pazientearen fisiopatologiari eragin diezaioketen kanpoko eragile nagusiak:

a) Ibilgailuaren mugimenduak eta bibrazioak.
b) Azelerazio- eta desazelerazio-indarrak.
c) Bidaiari-lekuaren barruko tenperatura.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

108.- Ibilgailu bat mugitzeko, indarra sortzen duen motorraz gain, beharrezkoa da motorraren mugimendua gurpiletara transmititzen duten elementu batzuk izatea. Elementu horiek transmisio-sistemakoak dira, eta hauek dira:

a) Enbragea, palierrak eta abatzak.
b) Deskarga-balbula, karterra eta olio-ponpa.
c) Abiadura-kaxa, ardatz eragileak eta talde diferentzialak.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

109.- Puzte-presioari dagokionez, gehiegizko presioak efektu hau eragiten du:

a) Egonkortasuna galtzea.
b) Itsasgarritasuna galtzea.
c) Higadura handiagoa errodadura-bandaren erdialdean.
d) Oihalak puskatzeko arriskua.

110.- Nola deitzen zaio oxigenazio pasiborako soluzio bat eskaintzen duen aire-bidea isolatzeko gailuari? Gailu hori pazientearen biriketan oxigenoa modu konstantean intsuflatzean datza, birika barneko presio kontrolatua eginez.

a) Arnasgailua.
b) RCP Boussignac ® sistema.
c) TET.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

111.- Gaixoa abdomenaren gainean etzanda dago, ohatila plano horizontalean duela, eta burua albo batera biratuta du. Nola deitzen zaio posizio horri?

a) Etzanera dortsala.
b) Ahuspezko etzanera.
c) Ahoz gora etzanda.
d) Alboko etzanera.

112.- Zeri esaten zaio geratzeko edo teknikoki geratzeko distantzia?

a) Erreakzio-denboran ibilgailuak egiten duen distantziari.
b) Gidariak oztopoa ikusten duenetik gelditzea lortzen duen arte ibilgailuak egiten duen distantziari.
c) Gidariak balaztari eragiten dionetik ibilgailua geldiarazten duen arte ibilgailuak egiten duen distantziari.
d) Gidariak oztopoa ikusten duenetik balaztari eragiten dion arte ibilgailuak egiten duen distantziari.

113.- Balazta-disko osagai hauek dituzte:

a) Bi balazta-disko mugimendua hartzen duen abatzarekiko solidarioak, bi balazta-pintza, bi eragingailu hidrauliko eta balazta-pastillak.
b) Bi balazta-disko mugimendua hartzen duen abatzarekiko solidarioak, balazta-pintza bat, eragingailu hidrauliko bat eta balazta-pastillak.
c) Balazta-disko mugimendua hartzen duen abatzarekiko solidarioa, bi balazta-pintza, bi eragingailu hidrauliko eta balazta-pastillak.
d) Balazta-disko mugimendua hartzen duen abatzarekiko solidarioa, nondik mugitzen den, balazta-pintza bat, eragingailu hidrauliko bat eta balazta-pastillak.

114.- Garraio sanitarioko zerbitzuak emateko ibilgailuen gutxieneko langile-kopurua hau da:

a) B motako anbulantzia asistentzialek, gutxienez, osasun-larrialdietako teknikarien lanbide-heziketako titulua duen gidari bat izan beharko dute (titulu hori urriaren 29ko 1397/2007 Errege Dekretuan aurreikusita dago), edo dagokion atzerriko titulu homologatua edo onartua izan beharko du, eta beste gidari bat, laguntzailearen eginkizunetan, gutxienez titulazio bera duena.
b) A1 eta A2 motako anbulantzia asistentzialek, gutxienez, larrialdi sanitarioetako teknikarien lanbide-heziketako titulua duen gidari bat izan beharko dute, urriaren 29ko 1397/2007 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, edo dagokion atzerriko titulu homologatua edo aitortua, eta beste gidari bat, laguntzaile eginkizunetan, gutxienez titulazio bera duena.
c) C klaseko anbulantzia asistentzialek, gutxienez, larrialdi sanitarioetako teknikarien lanbide-heziketako titulua duen gidari bat izan beharko dute (titulu hori urriaren 29ko 1397/2007 Errege Dekretuan aurreikusita dago), edo dagokion atzerriko titulu homologatua edo aitortua, eta beste gidari bat, laguntzailearen eginkizunetakoa, gutxienez titulazio bera duena.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

115.- Garraio sanitarioko baimenak hauen bidez lotutako ibilgailuak gaitzen ditu:

a) Bastidore-zenbakia Garraio Enpresa eta Jardueren Erregistroan inskribatzea.
b) Enpresaren IFK Garraio Enpresa eta Jardueren Erregistroan inskribatzea.
c) Bere matrikula Garraio Enpresa eta Jardueren Erregistroan inskribatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

116.- Arau-hauste astuntzat hartuko dira:

a) Zabarkeriaz gidatzeari buruzko jokabideak.
b) Arduraz gidatzeari buruzko jokabideak.
c) Ausarkeriaz gidatzeari buruzko jokabideak.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

117.- PRE/1435/2013 aginduaren arabera emandako garraio-baimenak:

a) Autonomia Erkidegoko lurralde osoan garraioa egiteko gaitzen dute.
b) Estatuaren lurralde osoan garraioa egiteko gaitzen dute, beren ekintza-esparruari buruzko mugarik gabe.
c) Estatuaren lurralde osoan garraioa egiteko gaitzen dute, beren ekintza-eremuarekiko mugekin.
d) Europar Batasuneko lurralde osoan garraioa egiteko gaitzen dute, beren ekintza-esparruari buruzko mugarik gabe.

118.- Garraio sanitarioko ibilgailuek honako eskakizun hauek bete behar dituzte ibilgailuari dagokionez:

a) Neguko pneumatikoak, edo bestela izotz eta elurretarako kateak, urritik martxora bitartean behintzat, biak barne.
b) Pertsonak garraiatzeko indarrean dagoen araudira egokitutako potentzia fiskala, esekidura eta balazta-sistemak dituen ibilgailua.
c) Aldizkako mugimendu-adierazleak.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

119.- Motorreko koipeztatze-zirkuituak funtzio hauek betetzen ditu. Adierazi zein den erantzun zuzena:

a) Organo mekaniko mugikorren arteko marruskadura murriztea, motorraren bizitza erabilgarria luzatzea eta marruskaduragatiko potentzia-galerak saihestea.
b) Motorra garbi dagoela ziurtatzea, deposituak sortzea eragotziz eta motorraren funtzionamendu partikularretik askatzen diren mikropartikulak arrastatuz.
c) Segmentuekin elkarlanean aritzea zilindroa zigilatzeko ekintzan, konpresio-ihesen ondoriozko potentzia-galerak saihestuz.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

120.- Baterien ezaugarri nagusiak kanpoaldean markatuta daude. 12V-ra 200 A/40 Ah aztertuz, hau ondorioztatzen dugu:

a) 12V bateriaren tentsioari dagokio
b) 200A-k adierazten du zer korronte-ahalmen minimo eman dezakeen.
c) 40 Ah-k adierazten du minutu bateko aldi jarraitu batean eman dezakeen korronte izendatuaren kapazitatea.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

121.- Paziente bat immobilizatzeko eta garraiatzeko bizkarrezur-taula aukeratu aurretik, zer gomendio izan behar dugu kontuan?

a) Lekualdaketetan erabiltzea ezin da asko luzatu, konpresioak eragindako lesioak agertzea eragin baitezake.
b) Ezin da erabili pediatriako adinetan, lesioak eragin baititzakete.
c) Ezin da erabili haurdun dauden emakumeetan, oso gogorra baita. Beti koltxoi hutsarekin immobilizatuko da.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

122.- Teknikariak soluzio antiseptiko bat emango dio larrialdi batean heldu bati kateter batekin torakozentesi bat egiten bazaio. Zein da teknika hori erabiltzeko bide nagusia?

a) Saihetsen arteko 3. espazioa bularrezurraren erdiko lerroaren mailan.
b) Saihets arteko 2. espazioa klabikularen erdiko lerroaren mailan.
c) Saihets arteko 2. espazioa besapeko erdiko lerroaren mailan.
d) Saihets arteko 3. espazioa klabikularen erdiko lerroaren mailan.

123.- Zein posiziotan egon behar du lepoko zerbikala jarri behar zaion paziente batek?

a) Ahoz gorako etzanera edo ahoz beherako etzanera.
b) Ahoz gorako etzanera edo alboko etzanera.
c) Sedestazioan edo ahoz gorako etzanera.
d) Ahoz gorako etzaneran soilik.

124.- EAEko errepide-sarearen sailkapenean, sare funtzionalak hiru sare-mota ditu, funtzionaltasunaren arabera:

a) Lehentasunezko sarea, Oinarrizko sarea eta Eskualde sarea.
b) Sare Nazionala, Eskualde sarea eta sare Lokala.
c) Lehentasunezko sarea, Bigarren mailako intereseko sarea eta Hirugarren mailako intereseko sarea.

d) Interes Orokorreko sarea, Oinarrizko sarea eta Eskualde sarea.

125.- Ibilgailuaren igorgailuaren GATEWAY moduak, Biktima Anitzeko Istripu (IMV) baten kasuan, zer aukera emango digu?

a) Horri esker, ibilgailuaren igorleak errepikagailu gisa jardun dezake eta, horrela, gerta daitezkeen estaldura-gabeziak bete ditzake.
b) Aukera ematen du irratiak gorabeheraren kokalekua adierazteko koordenatuen bidez.
c) Koordinazio-zentroarekin (KZ) zuzeneko komunikazioa izateko aukera ematen du, PATCH bat sortuz.
d) Talkian dagokion kanala aurkitzeko aukera ematen du, IMVan bete beharreko erantzukizunaren arabera eta KZren jarraibideen arabera.

126.- Semaforoaren argi batek adierazten du ibilgailuek gelditu egin behar dutela. Baina salbuespen egoera izango da ezin bada gelditu segurtasun-baldintzetan, ibilgailua pizten denean frenatzeko lekutik gertuegi badago. Zein argik adierazten du hori?

a) Aldizkako argi gorri batek.
b) Aldizkakoa ez den argi gorriak.
c) Aldizkako argi hori batek.
d) Aldizkakoa ez den argi hori batek.

127.- 4 urteko neskato bati hasierako balorazioa egin behar badiogu OBE laguntza-protokolo orokorraren arabera, zein protokolo jarraituko genuke?

a) ABCDE delakoa egingo genuke.
b) EKG delakoa egingo genuke.
c) ABC delakoa egingo genuke.
d) TEP delakoa egingo genuke.

128.- Enbrage diskoaren funtzioa:

a) Gidariak pedala zapaltzen duenean enbragearen diafragma sakatzeaz arduratzen da.
b) Platera diskoaren kontra bultzatzea, edo pedalari eragiten zaionean askatzea.
c) Motorraren mugimendua kaxara transmititzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

129.- Hauek dira C motako anbulantziak:

a) Bizi-euskarri aurreratua emateko direnak.
b) Oinarrizko bizi-euskarria eta hasierako osasun-arreta emateko direnak.
c) Pazienteak ohatilan garraiatzeko erabiltzen direnak.
d) Garraio kolektiborako erabiltzen direnak, presazko lekualdatzea behar ez duten gaixoak batera garraiatzeko egokituak.

130.- EZ DA BATERAGARRIA izango gidatzen etengabe aritzea eta…

a) Oinezkoen sarrera edo jaitsiera ikusteko monitoreak erabiltzea.
b) Atzeko maniobra kamerak erabiltzea.
c) GPS gailua erabiltzea, manipulatzen ez bada ere.
d) Interneterako sarbidea duten pantailak erabiltzea.

131.- Funtsezkoa da zirkulatzen ari diren ibilgailuek gure presentziaren eta maniobren berri izatea. Horretarako, automobilak honako hauek ditu:

a) Klaxona eta aurreko eta atzeko posizio-argiak.
b) Keinu-argiak, balazta-argiak eta atzera-martxako argiak.
c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
d) a) eta b) faltsuak dira.

132.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa emateko baldintza da:

a) Ibilgailuak matrikulatuta eta zirkulatzeko gaituta egon beharko du, eta ezingo du zortzi urteko antzinatasuna gainditu, lehen matrikulaziotik kontatzen hasita.
b) Industriaren arloan indarrean dauden arauen arabera, ibilgailuari dagokionez legez egin behar diren aldizkako azken bi ikuskapen teknikoek indarrean egon behar dute.
c) Ibilgailuak maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuan bere ibilgailu sanitario motarako eskatzen diren osasun-baldintza teknikoak bete beharko ditu.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

133.- Adierazi zein den erantzun OKERRA. Balaztatzeko erreduktore ohikoenak hauek dira:

a) Dezelerazioaren menpeko presio-erreduktoreak.
b) Kargaren mendeko presio-erreduktoreak.
c) Abiaduraren mendeko presio-erreduktoreak.
d) Presioaren menpeko presio-erreduktoreak.



134.- Zer da zilindro-bolumena?

a) Zilindro guztien baturak duen bolumen ahalmena da.
b) Denbora horretan eztanda-motorrarekiko dagoen aldea da.
c) Zilindro bakar baten bolumen unitarioa da.
d) Zenbaki batekin adierazitako konpresio-erlazioa da.

135.- Adierazi zein den erantzun OKERRA. Pizte-zirkuituaren funtzioa bujia bakoitzean txinparta elektriko bat sortzea da, une egokian eta zilindroaren barruko nahastea pizteko behar besteko energiarekin. Zein elementuk osatzen dute:

a) Bujiek.
b) Aginte-sistemak.
c) Bateriak.
d) Erreleak.

136.- Zain-bide periferiko bat kanalizatzean, zaina larruazaletik ziztatzen da. Zein materialekin?

a) Angiokateter motako orratz batekin.
b) Orratz zurrun batekin, angiokateter, tximeleta edo xiringa bati konektatutako orratz batekin.
c) Orratz zurrun batekin, angiokateter, tximeleta edo Abbocath motakoa.
d) Angiokateter edo tximeleta erako orratz batekin.

137.- Korronte zuzeneko *brushless* motorrei dagokienez, zein baieztapen da zuzena?

a) Errotorea zuzenean korronte zuzenaz elikatutako bobinez osatuta dago.
b) Estatoreak iman iraunkorrak ditu eta errotoreak korronte alternoz elikatutako bobinak.
c) Errotoreak iman iraunkorrak ditu eta estatoreak korronte zuzeneko pultsu laburrez elikatutako bobinak.
d) Funtzionamendua eskuilen bidez egiten da, korrontea errotorera transmititzeko.

138.- Turismoak motaren arabera sailka daitezke, modalitatearen arabera. Zeintzuk dira ezagutzen diren modalitateak?

a) Coupé, Familiar, Limusina, Cabriolet, Berlina, lur orotako ibilgailua, Sport, Monobolumena, Compacto eta Pick-up.
b) Coupé, Cabriolet, Berlina, lur orotako ibilgailua, Biplaza, Monobolumen, Compacto, Limusina eta Pick-up.
c) Familiarra, Limusina, Cabriolet, Berlina, Lur orotakoa, Sport, Monobolumena, Trinkoa, Anbulantzia eta Pick-up.
d) Coupé, Familiar, Limusina, Cabriolet, Berlingo, lur orotako ibilgailua, Sport, Monobolumen, Compacto eta Pick-up.

139.- OBE hipogluzemiako protokolo asistentzialaren arabera, zein dira paziente bat artatzen dugunean izan ditzakegun konplikazioak?

a) GHI eta arnas gutxiegitasuna.
b) Konbultsioak, fokalitate neurologikoa, bihotz-arritmia eta aspirazioa.
c) MIA (IAM) eta GHI.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

140.- Zer abantaila ditu hezur barneko bide bat zain barneko bide baten gainean jartzeak?

a) Ez du inolako abantailarik bata bestearen gainean jartzeak.
b) Ez du abantailarik, desabantailak baizik, ezin baita odola perfunditu.
c) Erraz jartzeko abantaila du, edozein hezurretan eta edozein lekutan txerta baitaiteke larrialdirik gertatuz gero.
d) Abantaila bat du: ez du kolapsatzen hipobolemia edo basokonstrikzio periferiko egoeretan.

141.- Bularreko haur baten kasuan, gorputz arrotz batek eragindako aire-bidearen buxadura larria gertatzen bada, eztul ez-eraginkor eta kontzientearekin, bizkarrean kolpeak eman ondoren, gure jarduera hau izango da:

a) 5 konpresio toraziko.
b) 5 konpresio abdominal.
c) Arnasketa egiaztatzea.
d) BBB hasi.

142.- Zein izen du Gurutzetatik Erletxerako eta Arrontegi zubitik igarotzen den errepideak?

a) N-635.
b) N-636.
c) N-637.
d) N-638.

143.- Zein kasutan dago kontraindikatua zunda gastrikoa?

a) Substantzia sendagarriak hartu dituzten pazienteetan.
b) Kontzientzia-maila murriztua duten pazienteetan, aurretik airebidea isolatu gabe.
c) Muineko lesioa duten pazienteetan.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

144.- Gehieneko abiadura 90 kilometro orduko bada eta ibilgailua 162 kilometro orduko baino gehiagora badabil, isuna ordaindu beharko du eta puntuak galduko ditu. Zein da erantzun zuzena?

a) 600 euroko isuna eta 4 puntu.
b) 500 euroko isuna eta 6 puntu.
c) 400 €-ko isuna eta 6 puntu.
d) 600 €-ko isuna eta 6 puntu.

145.- Bilboko metroan Biktima Anitzeko Istripu (IMV) bat izanez gero, biktimei laguntzeko tuneletara sartu behar bada, kasu hauetan bakarrik esku hartuko da:

a) Metro-Bilbaok katenariei eta gasen eta keen ebakuazioari buruz duen informazioa ona bada.
b) Suhiltzaileen buruak eremua segurutzat jotzen badu.
c) Biktima Anitzeko Istripu (IMV) batean ez gara inoiz tuneletara sartuko.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

146.- Automobilak airbag hauek izan ditzake:

a) Gidariarena eta kopilotuarena.
b) Atzeko bidaiariena.
c) Sabaikoak eta albokoak.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

147.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioa EZEZTATZEA bidezkoa izango da honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Ibilgailua zortzi urtetik gorakoa izatea.
b) Ibilgailuak maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuan bere ibilgailu sanitario motarako eskatzen diren baldintza tekniko-sanitarioak ez betetzea.
c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
d) a) eta b) ez dira zuzenak.

148.- Zein da motor elektrikoen egiaztapen mota, zeinetan ez den ibilgailuko inongo osagairik desmuntatzen, ibilgailua tailerrean geldirik dagoela, kontaktua piztuta eta OBDII (*On- Board Diagnostics II*) konektorearen bidez diagnostiko-aparatu bat konektatuta?

a) Bankuko egiaztapen dinamikoa
b) Diagnostiko-aparatuarekin egindako egiaztapen estatikoa
c) Desmuntaketaren bidezko egiaztapen mekanikoa
d) Errepidean egindako egiaztapen funtzionala

149.- Larrialdietako zerbitzuetako taldeen jarduerak:

a) Zirkulazioan ahalik eta eragin txikiena izaten saiatu behar du beti.
b) Galtzada ahalik eta gutxien okupatuko du.
c) Trafikoko Buruzagitza Nagusia organismo autonomoak edo, hala badagokio, trafikoa arautzeaz arduratzen den agintaritza autonomikoak edo tokikoak ematen dituen jarraibideak beteko ditu.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

150.- Karrozeriak diseinatzerakoan, irizpide estetiko hutsez gain, segurtasunari buruzko beste zein irizpide hartu behar dira kontuan?

a) Bibrazioak, iraunkortasuna, aerodinamika, deformagarritasuna eta zurruntasuna.
b) Zurruntasuna, haustura, bibrazioak, iraunkortasuna eta aerodinamika.
c) Hauskortasuna, aerodinamika, bibrazioak, deformagarritasuna eta zurruntasuna.
d) Hauskortasuna, aerodinamika, oszilazioak, deformagarritasuna eta zurruntasuna.

151.- Direkzio-sistemak behar bezala funtziona dezan, gurpil zuzentzaileek baldintza geometriko jakin batzuk bete behar dituzte, eta baldintza geometriko horiei direkzio-kotak deitzen zaie normalean. Direkzio-sistemaren kotak hauek dira:

a) Erorketa-, balazta-, aitzinamendu- eta dibergentzia-angelua.
b) Irteera-, igoera-, aurrerapen- eta konkurrentzia-angelua.
c) Erorketa-, irteera-, aitzinamendu- eta konbergentzia-angelua.
d) Aitzinamendu-, balazta-, erorketa- eta konbergentzia-angelua.

152.- Garraio sanitarioko ibilgailuek honako eskakizun hauek bete behar dituzte zelula sanitarioari dagokionez:

a) Gidariaren lekuari aplikatutako isotermia- eta intsonorizazio-neurriak.
b) Ezkerreko alboko atea eta atzeko atea, pazientea erraz sartzeko moduan ireki daitekeena.
c) Beira zeharrargiak. Garraio kolektiboko ibilgailuen kasuan, pazientearen intimitatea ziurtatzen duen beste gailu bat aukeratu ahal izango dute.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

153.- Gure anbulantziarekin errepide arrunt batetik zirkulatzen ari bagara, eta ezin bada eskatutako gutxieneko abiadura lortu eta atzetik talka egiteko arriskua badago, zer egin behar dugu?

a) Lehenengo irteeran bidea uztea.
b) Debekatuta dago, beraz, adierazitako abiaduran zirkulatu beharko dugu beti.
c) Argia edo larrialdi-seinalea erabili behar dira.
d) Ibilgailua bazterbidean aparkatu eta behar diren neurriak hartu beharko dira.



154.- Zein dokumentu mota da bertaratze-txostena?

a) Pazientearen informazio kliniko guztia jasotzen duen dokumentua.
b) Ez da dokumentu bakar bat, hainbat baizik.
c) Zerbitzua ematen den bitartean sortzen den dokumentazio guztia, eta emandako osasun-laguntzari buruzkoa ez den informazioa ere dago barne.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

155.- Zein bi jarreratan jar dezakegu arnas arazoak dituen pertsona bat?

a) Fowler eta Morestinen posizioetan.
b) Trendelemburg eta Morestinen posizioetan.
c) Anti-Trendelemburg eta Morestín posizioetan.
d) Fowler eta Sims posizioetan.

156.- Adierazi zein den erantzun OKERRA. Ziurtagiri tekniko-sanitarioa lortzeko, honako hauek aurkeztu behar dira:

a) Ibilgailuaren zirkulazio-baimena.
b) Ibilgailuaren bastidore-zenbakia.
c) Ibilgailuaren azterketa teknikoaren fitxa.
d) Ibilgailuari buruzko memoria, ezaugarri teknikoak, ekipamendu tekniko-sanitarioa eta langile-kopurua jasotzen dituena.

157.- Adierazi zein den baieztapen zuzena:

a) Arau-hauste astuna izango da sua piztea eragin dezakeen edozein gauza bidera edo bide-ingurura botatzea.
b) Arau-hauste oso astuna izango da sua piztea eragin dezakeen edozein gauza bidera edo bide-ingurura botatzea.
c) Arau-hauste oso astuntzat joko da bidera edo bide-inguruetara edozein objektu botatzea, baldin eta, oro har, bide segurtasuna arriskuan jar badezake.
d) Arau-hauste arina izango da oro har bide-segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein objektu bidera edo bide-inguruetara botatzea.

158.- BBB egiten dugun bitartean, eta 2 urteko haur bat aireztatzen dugunean, zenbat iraungo du intsuflazioak?

a) 1 segundo.
b) 0,5 segundo, bihotz-masajerik egin gabe denbora minimizatzeko.
c) 2 segundo.
d) 1,5-2 segundo.

159.- Trauma Pediatrikoaren Indizearen (PTI) arabera 5 urtetik beherako bat baloratu behar badugu OBE trauma larriko laguntza-protokoloan, zer puntu hartu beharko ditugu kontuan?

a) Arnasbideak, TAS, NSZ eta zauriak.
b) Arnasbidea, TAS, NSZ, zauriak, hausturak eta pisua.
c) Arnasbidea, TAS, NSZ, zauriak, hausturak, pisua eta adina.
d) Arnasbidea, zauriak, hausturak eta pisua.

160.- Pneumatikoaren identifikazioari dagokionez, "155/70 R 13" neurriak hau adierazten du:

a) Lehen zenbakiak (155) pneumatikoaren zabalera milimetrotan adierazten du. Bigarren zenbakiak (70) adierazten du estalkiaren distantzia, errodadura-bandatik orporaino, pneumatikoaren zabaleraren % 70 dela. R letrak adierazten du egitura zirkularra duen haguna dela. 13 zenbakiak hagunaren erradioa adierazten du, orpoen eserlekuetatik neurtuta eta milimetrotan adierazita.
b) Lehen zenbakiak (155) pneumatikoaren zabalera milimetrotan adierazten du. Bigarren zenbakiak (70) adierazten du estalkiaren distantzia, errodadura-bandatik orporaino, pneumatikoaren zabaleraren % 70 dela. R letrak egitura erradiala duen estalki bat dela adierazten du. 13 zenbakiak hagunaren diametroa adierazten du, orpoen eserlekuetatik neurtuta eta hazbetetan adierazita.
c) Lehenengo zenbakiak (155) pneumatikoaren zabalera hazbetetan adierazten du. Bigarren zenbakiak (70) adierazten du estalkiaren distantzia, errodadura-bandatik orporainokoa, pneumatikoaren luzeraren % 70 dela. R letrak adierazten du egitura erradiala duen haguna dela. 13 zenbakiak hagunaren erradioa adierazten du, orpoen eserlekuetatik neurtuta eta milimetrotan adierazita.
d) Lehenengo zenbakiak (155) pneumatikoaren zabalera hazbetetan adierazten du. Bigarren zenbakiak (70) adierazten du estalkiaren distantzia, errodadura-bandatik orporainokoa, pneumatikoaren luzeraren% 70 dela. R letrak adierazten du egitura zirkularra duen estalkia dela. 13 zenbakiak hagunaren diametroa adierazten du, orpoen eserlekuetatik neurtuta eta hazbetetan adierazita.

161.- Ziurtagiri tekniko-sanitarioetan honako hauek jaso beharko dira:

a) Ibilgailuaren titulartasuna, zirkulazio baimenean adierazitako helbidea, matrikula, klasea eta antzinatasuna.
b) Ibilgailuaren titulartasuna, langileen titulazioa eta matrikula.
c) Ibilgailuaren titulartasuna, langileen titulazioa, matrikula, klasea eta antzinatasuna, baita ziurtagiria egin eta berritu zen eguna ere.
d) Ibilgailuaren titulartasuna, zirkulazio-baimenean adierazitako helbidea, matrikula, bastidore-zenbakia, mota eta antzinatasuna, baita ziurtagiria egin eta berritu zen eguna ere.

162.- Ibilgailu bat garraio sanitarioko baimen bati atxiki ahal izateko, honako hauek dituela egiaztatu beharko da:

a) Indarrean dagoen ziurtagiri tekniko-sanitarioa eta titularrak ibilgailu bat duela, jabetzan edo finantza-errentamenduan izan daitekeena.

b) Garraio-ziurtagiria, indarrean dagoena, eta titularrak ibilgailu bat duela, jabetzan edo finantza-errentamenduan izan daitekeena.
c) Indarrean dagoen ziurtagiri tekniko-sanitarioa eta titularrak ibilgailu bat duela jabetzan. Ezin dira errentamendu finantzarioko ibilgailuak atxiki.
d) Indarrean dagoen garraio ziurtagiria eta titularrak ibilgailu bat duela, jabetzan. Ezin dira errentamendu finantzarioko ibilgailuak atxiki.

163.- Nola deitzen zaio kanporatutako airean dagoen karbono dioxidoaren kontzentrazioa neurtuz, aireztapen albeolarraren eraginkortasuna baloratzeko erabiltzen den metodo ez-inbaditzaileari?

a) Kapnometria.
b) Kooximetria.
c) SpMet
d) SpO.

164.- Zunda nasogastriko bat jarri behar zaion paziente bati, honako posizio honetan jarriko dugu:

a) Morestinen posizioa.
b) Ahoz gorako etzanera.
c) Fowlerren posizioa.
d) Roserren posizioa.

165.- BBB bat egiterakoan eta eskuetako orpoa bular gainean jartzerakoan, zein da leku egokia?

a) Saihetsen gainean.
b) Bularrezurraren beheko erdian.
c) Bularrezurraren goiko erdian.
d) Bularrezurraren erdian.

166.- Oro har, zertarako balio du galibo-argiak?

a) Ibilgailuaren altuera adierazten du.
b) Ibilgailuaren zabalera adierazten du.
c) Ibilgailuaren luzera adierazten du.
d) Ibilgailua dagoela adierazten du, argiaren islapenaren bidez.

167.- Behin-behineko ziurtagiri tekniko-sanitarioak balio hau izango du gehienez:

a) Bederatzi hilabete.
b) Hiru hilabete.
c) Urtebete.
d) Bi urte.

168.- Zer egin behar dugu gidatzen ari garela alboko haizearen eragina murrizteko?

a) Bolanteari tinko eutsi eta haizearen alde tira egin.
b) Pantailaren funtzioa egin diezagukeen ibilgailu handi baten alboan jartzea.
c) Bolanteari tinko eutsi eta haizearen kontra tira egin.
d) Abiadura handitu haizeak kontra egiten badigu.

169.- Nork egiten du oinarrizko triajea Biktima Anitzeko Gertaera (IMV) batean?

a) Erizainek.
b) Medikuntzako langileek: tratamenduaren arduraduna eta Nagusia.
c) Larrialdi-taldeko teknikariak, iristen lehena bada.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

170.- Paziente bat mobilizatu aurretik, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) Pazientea mugitzeko behar diren langileak.
b) Pazientearen lekua eta posizioa, eta hark dituen lesioen egoera eta larritasuna.
c) Eszena baloratzea eta BAS (gazteleraz PAS) jokabidea aplikatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

171.- Zer bi hozte-mota daude?

a) Olio bidezko hoztea eta balbulina bidezko hoztea.
b) Aire bidezko hoztea eta likido hoztailearen bidezko hoztea.
c) Aire bidezko hoztea eta balbulina bidezko hoztea.
d) Olio bidezko hoztea eta likido hoztailearen bidezko hoztea.

172.- Garraio sanitarioko ibilgailuek eskakizun hauek bete behar dituzte identifikazioari eta seinaleztapenari dagokienez:

a) Atzeko inskripzioa, baldin badago, alderantzizko norabidean egingo da, islapen bidez irakurri ahal izateko.
b) Pasatzeko lehentasuna duten argi- eta soinu-seinaleak, indarrean dagoen erregelamenduan xedaturikoarekin bat.
c) Kanpoan identifikatzea, anbulantzia bat dela argi eta garbi bereizteko, ibilgailuaren alboan «Anbulantzia» hitza idatzita.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

173.- Zein hiru zati ditu bielak?

a) Besoa, gorputza eta burua.
b) Besoa, gorputza eta oina.
c) Oina, gorputza eta burua.
d) Oina, burua eta pistoia.

174.- Zein da errepideetan istripuak gertatzeko lekurik arriskutsuena?

a) Istripu gehiago gertatzen dira zuzenguneetan kurbetan baino.
b) Istripu gehiago gertatzen dira bihurguneetan zuzenguneetan baino.
c) Bihurguneetan bezainbeste istripu gertatzen dira zuzenguneetan.
d) Ohiko errepideetan baino istripu gehiago gertatzen dira autobietan.

175.- Zer jarduera sanitario egin daitezke zaurituekin, ezohiko Biktima Anitzeko Geraera (IMV) batean, eremu gorrian, segurtasun-taldeetarako mugatutako sarbidean?

a) Bat ere ez, eszena segurua izan arte.
b) Triajea egiteko koloretako zintak jartzea.
c) Apositu hemostatikoak jartzea, odoletik kanpoko odoljarioak geldiarazteko.
d) Torniketeak, segurtasuneko albo-posizioa edo urrezko kanulak edo nasofaringeoak erabiltzea.

176.- Trapezioen funtzioa da:

a) Gidatze pneumatikoa hobetzea.
b) Alboetako indarrak mugatzea eta itsaspena hobetzea.
c) Azelerazioak eta erretentzioak gertatzen direnean, elementu elastikoetan luzetarako mugimenduak mugatzea.
d) Bihurguneetatik igarotzean, ibilgailua ez kulunkatzea.

177.- Zein da iragazkortasunaren definizioa medikamentu bati buruz ari garenean?

a) Sendagai bat larruazaleko geruzetatik xurgatzea eta odol-hodi baten mintza zeharkatuz odol-fluxurako sarbidea izatea da.
b) Eskrezioaren aurretik sendagaia gibeletik igarotzea da.
c) Medikamentua zuzenean ematen da organismoaren barruan, bai zain barnetik, bai kanpotik.
d) Xurgapena bronkioetako, bronkioloetako eta albeoloetako mintzetan zeharreko difusio pasiboaren bidez soilik gertatzen denean.

178.- Trauma larri odoltsu bat duen paziente baten balorazioa egitean, eta OBE trauma larri odoltsu baten asistentzia-protokoloari jarraituz, ebaluazio hori honako hurrenkera honetan egingo da:

a) Kanpoko odoljario masiboen kontrola - Arnasbidea + Lepoaren kontrola - Aireztapena - Zirkulazioa - Balorazio Neurologikoa - Esposizioa.
b) Aireko bidea + Zerbikalen kontrola - Aireztapena - Zirkulazioa - Balorazio Neurologikoa - Esposizioa.
c) Aireko bidea + kontrol zerbikala - Aireztapena - Zirkulazioa + Kanpoko odoljario masiboen kontrola - Balorazio Neurologikoa - Esposizioa.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

179.- BBB batean heldu batean KDA bat erabiltzeko sekuentzian, partxeak jartzerakoan eta bi bizkortzaile daudenean, zein da aukera zuzena?

a) BBB maniobrak gelditu egin behar dira partxeak jartzen diren bitartean.
b) Beharrezkoa da biktima inork ez ukitzea partxeak jartzen zaizkion bitartean.
c) BBB maniobrekin jarraitu behar da partxeak jartzen diren bitartean.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

180.- Hauek dira takeak:

a) Take finkoak eta take hidraulikoak.
b) Take finkoak, altuera erregulatuko takeak eta take hidraulikoak.
c) Take finkoak, erregulatu gabeko takeak eta take hidraulikoak.
d) Take finkoak eta zabalerako erregulaziodun takeak.

181.- Adierazi zein den erantzun OKERRA. Garraio sanitarioko ibilgailuek, nahitaezko dokumentuei dagokienez, eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Bidaiari-tokiko desinfekzioen erregistroa.
b) Ekipamenduaren desinfekzioen erregistroa.
c) Indarrean dagoen jarduera-protokoloen liburua.
d) Erreklamazio-liburua.

182.- Zein motatako esekidura dira ardatz zurruneko esekidura, ardatz erdizurruneko esekidura eta esekidura independentea?

a) Aurreko esekidura.
b) Atzeko esekidura.
c) Esekidura hidropneumatikoa.
d) Esekidura adimenduna.

183.- Ibilgailua 90 km/h ko abiaduran gidatzean, erreakzioaren distantzia segundo bateko metrotan, zenbat metrokoa da?

a) 25 metro.
b) 22 metro.
c) 20 metro.
d) 18 metro.

184.- Preeklanpsia duen emakume haurdun bat koman badago eta konbultsioak izaten hasten bada, zer medikazio erabil dezakegu eklanpsia tratatzeko?

a) Lidokaina.
b) Manitola.
c) Meperidina.
d) Magnesio sulfatoa.

185.- Anbulantzia bat gidatzen ari zarela agente batek alkohola edo drogak detektatzeko proba bat egiteko eskatzen badizu:

a) Lanean ari naizen bitartean ezezkoa eman diezaioket.
b) Ezin dut ezetzik esan agente batek deitzen banau.
c) Ospitale batera joanda egin dezaket.
d) Zerbitzua amaitutakoan egin dezaket.

186.- Bidean oztoporen bat edo arriskuren bat sortu dutenek:

a) Gainerako erabiltzaileek ohartarazteko beharrezko neurriak hartuko dituzte.
b) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
c) Lehenbailehen desagerrarazi beharko dute.
d) Oztopo edo arriskutik urrundu beharko dute, eta erakunde autonomoak kudeatu arte itxaron.

187.- Paziente baten mobilizazio-materialaren barruan, erreskate-olana dago. Material horrek ezaugarri hauek ditu:

a) Zurruna edo malgua izan daiteke, zati zurrunak itsats dakizkiokeen arabera.
b) Erabiltzen ez denean egitura tolesteko aukera ematen duen guraize-mekanismoa du.
c) Zati zurrunik ez duen plastikozko olana batez soilik osatuta dago.
d) Bizkarrezurreko eta pelbiseko lesionatuak garraiatzeko erabiltzen da. Hutseko koltxoia ere esaten zaio.

188.- Garraio sanitarioko zerbitzuak emateko ibilgailuen gutxieneko langile-kopurua hau da:

a) A1 klaseko anbulantzia ez-asistentzialek, gutxienez, maiatzaren 20ko 710/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria duen gidari bat izan beharko dute, eta, zerbitzu-motak hala eskatzen duenean, kualifikazio bereko laguntzaile bat.
b) C klaseko anbulantzia asistentzialek gidari bat izan beharko dute, gutxienez, maiatzaren 20ko 710/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria duena, eta, zerbitzu-motak hala eskatzen duenean, kualifikazio bereko laguntzailearen beste bat.
c) A2 motako anbulantzi ez-asistentzialek gidari bat izan beharko dute, gutxienez, maiatzaren 20ko 710/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria duena, eta, zerbitzu-motak hala eskatzen duenean, kualifikazio bereko laguntzailearen beste bat.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

189.- Abiadura moteltzeko, diskoa ukitzen duten elementuak dira:

a) Balazta-pastillak.
b) Balazta-pintzak.
c) Balazta-diskoak.
d) Eragingailu hidraulikoa.

190.- Olio nibelaren hagatxoa:

a) Gehieneko eta gutxieneko olio-maila egokia adierazten duten markak ditu.
b) Motorrean sartu eta muturra karterrean sartuta geratzen da.
c) Ibilgailu guztietan dago.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

191.- Adierazi zein den erantzun zuzena garraio publikoaren baimenen indarraldiari dagokionez:

a) Baimena emateko eskumena duen organoak bi urtean behin egingo du bisa, agindu honetan ezarritakoaren arabera eta Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak zehazten duen egutegiaren arabera.
b) Baimena emateko eskumena duen organoak hiru urtean behin egingo du bisa, agindu honetan ezarritakoaren arabera eta Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak zehazten duen egutegiaren arabera.
c) Baimena emateko eskumena duen organoak egingo du bisa urtero, agindu honetan ezarritakoaren arabera eta Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak zehazten duen egutegiaren arabera.
d) Baimena emateko eskumena duen organoak lau urtean behin egingo du bisa, agindu honetan ezarritakoaren arabera eta Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak zehazten duen egutegiaren arabera.

192.- Forondako biribilgunetik Forondako aireportura (Gasteiz-Gasteiz) joateko errepideari nola deitzen zaio?

a) N-624.
b) N-622.
c) N-621.
d) N-623.

193.- Ibilgailu moderno batean, zer funtzio du kontrol unitate elektroniko (*UCE* gazteleraz) bakoitzak?

a) Ibilgailu guztiak behar duen energia elektrikoa sortzea.
b) Ibilgailuaren sistemaren zati espezifiko bat kontrolatzea eta kudeatzea.
c) Erregaia biltegiratzea eta motorrerako banaketa erregulatzea.
d) Energia mekanikoa energia elektriko bihurtzea.

194.- Motor elektrikoen konexioei eta elikatze-sistemei dagokienez, adierazi zein motor mota den gaur egun erabiliena ibilgailu elektrikoen eta hibridoen trakzio-sistemetan:

a) Motor elektriko monofasikoak
b) Motor elektriko trifasikoak
c) Motor elektriko bifasikoak

d) Motor elektriko tetrafasikoak

195.- Ibilgailu baten motor elektrikoaren funtzionamenduaren II. moduan:

a) Ibilgailuak bira positiboekin egiten du aurrera, eta pareak noranzko berean jokatzen du.
b) Ibilgailua geldirik dago, pare motorrak ezer ez badu sortzen.
c) Ibilgailuak atzera egiten du, eta bira negatiboak ditu eta parea kontrako noranzkoan dabil.
d) Ibilgailuak baterian metatutako energiarekin bakarrik funtzionatzen du, motorraren mugimendurik gabe.

196.- Tentsio elektrikoa honela definitzen da:

a) Eroale batetik segundo batean igarotzen den elektroi kopurua.
b) Material batek korronte elektrikoa pasatzean duen oposizioa.
c) Zirkuitu bateko bi punturen artean dagoen potentzial elektrikoaren diferentzia.
d) Martxan dagoen aparatu elektriko batek guztira kontsumitzen duen energia.

197.- Ohm-en legea elektrizitatearen oinarrizko legea da, eta hauek erlazionatzen ditu:

a) Tentsioa, intentsitatea eta erresistentzia.
b) Tentsioa, potentzia eta energia.
c) Tentsioa eta intentsitatea.
d) Tentsioa eta erresistentzia.

198.- 12 V-eko bateria bat 60 Ah-ko ahalmenarekin % 100 kargatuta badago, zenbat hornitzeko gai da?

a) 130 ampere ordubetez.
b) 60 ampere ordubetez.
c) 10 ampere 4 orduz.
d) 5 ampere 5 orduz.

199.- Zein printzipiotan oinarritzen da errotorearen funtzionamendua motor elektriko asinkrono batean?

a) Errotorean eta estatorean dauden korronte elektriko estatikoetan.
b) Faraday-k deskribatutako indukzio elektromagnetikoaren printzipioan.
c) Errotoreko eremu magnetiko iraunkorretan.
d) Energia termikoa energia mekaniko bihurtzean.

200.- Motor elektrikoen funtzionamenduaren oinarria da:

a) Termodinamikaren legeak.
b) Elektromagnetismoaren legeak.
c) Elektroestatikaren legeak.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

Osakidetza

